

## PAKTU ANTITERRORISTAREN BILERA MADRILEN

### PP eta PSOEek desegin egin nahi dituzte "Obligazio konstituzionalak" betetzen ez dituzten Udalak

■ Madrileko Pakto Antiterroristak sei legeetako 30 artikulua aldatu nahi ditu. Gehienak Udaletxeetako legei buruzkoak dira ■ PP eta PSE-EEko zinegotzi eta egoitzak babesteko neurriak ere iragarri dira.

PP eta PSOEek Pakto Antiterroristako bilera egin zuten ostegunean eta zenbait lege aldaketa proposatu dituzte "terroristak baztertu" eta ETak amenazaturako kargu publikoak babesteko. Espainiako bi alderdi nagusiek legea aldatu nahi dute "obligazio konstituzionalak" betetzen ez dituzten Udalak desegiteko. Udalak desegiteko erabakia Madrileko Ministro Kontseiluak izango luke. Era berean, PP eta PSOEek desegin egin nahi ditu "terrorismoari nolabaiteko laguntza edo babesa ematen dioten Udalak edo ekintza terroristetan parte hartu duten pertsonak goratu edo justifikatzen dituztenak, eta baita biktimak edo senitartekoak gutxiesten dituztenak ere."

Bai Madrileko Pakto Antiterroristak eta bai Arkauteko Mahaiak zenbait neurri



Gobernu taldea eta oposizioa pleno batean.

hartu berri dituzte PP eta PSE-EEko zinegotziak, egoitzak eta ekitaldiak babesteko. ETak azken komunikatua "helburu militar" jo zituen bi alderdi horien sede eta ekitaldiak. Hernanin PSE-

EEK egoitza eta bi zinegotzi ditu. PPK, ez du egoitzarik eta zinegotzirik ere ez, zinegotzi bat atera zuen, baina, ez zuen kargurik hartu. Arkauteko Mahaiak segurtasun neurri bereziak iragarri ditu, zein

argitu ez badu ere. Bestalde, PP eta PSOEek proposatu dute zenzo elektoralean ez azaltzea ETak amenazaturako zinegotzien inolako daturik, eta horretarako lege elektoralak aldatzea. □

## PLENO BEREZIA ANTZIOLA-LATSUBE ENLAZEARI BURUZ

### Antziola-Latsunbe enlazea egin egingo da

■ Bidea egiteko tramiteekin aurrera jarraitzea erabaki zuen Plenoak, Sozialista Abertzaleak taldeko botoekin ■ EA-EAJ eta PSE-EEK tramiteak paralizatzea eskatu zuten.

PLENO berezia egin zuten ostegunean Udaletxean, EA-EAJk eskatuta. Antziola-Latsunbe enlazea tramiteak gelditzea eskatzen zuten, baina, Plenoak ezezkoa eman zion eskaerari eta enlazea egin egingo da.

**Arrazoi desberdinak**  
Bi orduko Plenoan arrazoi

asko bota zituzten Udal taldeek, enlazearen alde eta kontra. Sozialista Abertzaleak taldeak enlazearen beharra nabarmendu zuen "auzoak beraien artean eta zentroarekin hobeto komunikatzeko, eta herri barruko eta bereziki Zinkoneako trafikoa kanpokaldeko bideetara desbideratzeko". EA-EAJk zalantzan

jarri zuen enlazearen premia, eta eskatuta dagoen trafiko eta mobilitate estudioen emaitzak iritsi arte tramiteak geldiaraztea eskatu zuen, eta herritarrei galdeketa egitea ere bai. PSE-EEKo Udal taldeak, berriz, tramiteak bertan bera uztea eskatu zuen, errepidea baino paseoa egokiagoa dela argudiatuta.

**Herritarrek Plenoan**  
Osteguneko Plenora 15 bat herritar ere joan ziren zer erabakitzen zen ikustera. Hiru herritarrek Gobernu taldeari eskatu zioten enlazea tramiteak gelditzeko eta beste herritar batek oposizioa taldeen kontra hitz egin zuen, orain ekologista papera nondik eta nora hartu duten galdezka. □

## ■ FUTBOLA

### Hernani-Tolosa eta Hernani-Zumaiako gaur, Zubipen

GORENGO eta Emakumezko ligako partiduak jokatu dira gaur Zubipen. Gorengo mailan, Hernanik Tolosaren kontra jokatu du eta kamiseta berria ere estrenatu du, Bakelite Iberica enpresarekin lortutako akordioari esker. Partidua 16:30etan da. Emakumezkoek 12:00etan jokatu dute Ligako partidua, Zumaiakoren kontra. □

## ■ ERRUGBIA

### Liga hasi aurreko azken partidua, gaur

HERNANIK gaur jokatu du denboraldi aurreko azken partidua, Donibane Lohitzuneko talde gazte, baina, gogorraren kontra. Gaur 17:30etan Landaren. □

## ■ WATERPOLOA

### Hernanik gaur hasiko du Euskal Herriko Liga

HERNANIKO waterpolo taldeek Gipuzkoako liga hasia dute, eta lehen taldea gaur sartuko da Euskal Herriko Ligan ere. Getxon jokatu dute Faduraaren kontra gaur 19:30etan. Bigarren taldeak irabazteko moduko partidua du Gipuzkoako Ligan, Eibar-ko Urbaten kontra. Eibarren, 19:30etan. □

## ■ PELOTA -PALETA GOMA

### Manzisor-Martinez Gipuzkoako txapelketan

GIPUZKOAKO txapelketa gaur hasiko dute Manzisor eta Martinezek Intxaurrendoren kontra. Goian ibiltzeko aukera haundiak ditu bikote hernaierak aurtan ere. Gaur, 16:30etan Intxaurrendon. □

**Telemar**  
ITXASTELE S.L. Telyco denda  
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

**CD eskeintza berezia:**  
10 CD+1: 6 eurotan.

**EMTEC**  
CD-R HIGH PERFORMANCE  
700MB 80min 52X CERTIFIED

**WEB ASSISTANCE**

**MoviStar Activa**


*Mobiletan eskaintza:*  
Zenbakirik aldatu gabe, zure mobila aldatu dezakezu.

MOVISTAR PLUS

**ALCATEL**  
ALCATEL 311: 92,00 euro

**NOKIA**  
CONNECTING PEOPLE  
NOKIA 3330: 118 euro

**HORTZ KLINIKA**  
*Garmendia*



**Odontologia orokorra**

Txirrita kalea 13 - 1. ezk.  
Tel.: 943 55 34 92



**axeri**  
KIROLAK


Plazaberri 2, HERNANI  
Tel.: 943 33 12 50

Marka hauek aurkituko dituzu gure dendan:  
**RIP-CURL, BILLABONG, REEF, ASTORE, ADIDAS, BANANA MOON,...**

Marka berriak ekarri ditugu:  
**QUIKSILVER eta ROXY**

Iritxi da **udazken** eta **neguko** arropa.  
**ZATOZ ETA IKUSI**





Oialumeko dantzalekua, bil-toki berria egin aurretik.

## Oialumek 60 urte aurtengo denboraldian

■ Martindegiko dantzalekuak bihar hasiko du berriz ere iganderoko martxa.

OIALUME dantzalekuak bihar hasiko du denboraldi berria, hain zuzen ere hirurogeigarrena. Bi hernaniarren arteko apustu batetik sortutako erromeri horixe da Gipuzkoan gelditzen den bakarrenetakoa. Igandero, *Trakets*, *Akelarre*, *Laiotz*, *Izotz* eta beste zenbait talde pasako dira aurtan ere Oialumetik, 19:30etatik 24:00-ak arte. Igande honetan *Trakets* izango da.

**“Gehiena Astigarraga eta Oiartzun inguruko jendea”**  
Oialumeko Joanita Agerrezabalaga da dantzalekuaren 60 urteetako historia ondoena ezagutzen duena, bera izan baita urte guzti horietan erromeriari eutsi dionetako bat. Joanitik dionez Hernanitik ere jendea izaten zen Oialumen, baina, gehienak Astigarraga eta Oiartzun ingurutik etortzen ziren. Jende asko Loiolako



Joanita Agerrezabalaga.

kuartelean soldadu zegoen gizonak eta Donostian neskame zeuden emakumeak izaten ziren. Eta jende gehiena bizikletan joaten omen zen.

Jendea ez ezik, trikitilariak

ere hamaika paseak dira Oialumetik. Aurrenekoa Markos Zubeldia izan zen: orduan 25 pta ordaintzen omen zitzaion. Geroztik, Juan Ramon Amenabar, Bikondoa, Satur Agirre, Manolo Amenabar... eta beste asko. Gero, piskanaka taldeak hasi ziren eta gaur egunean *Trakets*, *Egan*, *Akelarre*, *Etza-kit* eta abar dabilta.

**Astigarragatik soinua jotzen**  
Joanita Agerrezabalagak pasadizo eta anekdota asko ditu Oialumen paseak. “Batean, -dio Joanitik- Udalaren permiso edo ez permiso gora-beheren bat zela-eta, goardia zibilak etorri eta festa galerazi egin ziguten, behintzat. Hernani eta Astigarra arteko muga hortxe dago koskan (Oialume taberna aurrean), eta hala, zer egingo-eta trikitilariak koska gainera igo eta Astigarragatik aritu ziren soinu jotzen”. □

## Ehiza postuetako zozketak gaur hasiko dira

EHIZA garaia iritsi da eta gaurtik aurrera egunero zozketatuko dira Hernaniko 110 postuak. Ehiza postuak Txantxangorri elkarteak daramazki eta zozketak ere bertan egingen

dira egunero, 20:00etan.

Postu gehienak Asketan daude, eta besteak Akola gainean eta Arimendin. Asketan, 50 daude, eta beste bietan 30-na. □

## Jaione Tejedor gimnasta, Zaragozan gaur

JAIONE Tejedor gimnasta hernaniarrak gaur hasiko du denboraldia. Tejedor Eibar-ko Ipuruia taldearekin dabil eta gaur Zaragozan izango da, Ciudad Zaragoza tor-

neoan. Jaione Tejedor Espainiako Lehenengo mailan dabil bere kategorian eta bihar taldekako proba izango du, 5 zintako modalitatean. □

## ZINEA BITERIN

### ‘Hombres de negro II’ eta ‘Peter Pan II’, gaur

ASTEBURU honetan hasi da zinea Biteri kultur etxean. Gaur bi pelikula izango dira arratsalde eta gauean. Arratsaldean, *Peter Pan II* botako dute umeentzat, 17:00etan, eta *Hombres de negro II* helduentzat, 19:30etan. Gauean, *Hombres de Negro II* ostera, 22:30etan. □

## Artzai txakur emea galdu da

Hernani eta Urnieta arteko bidetxur batean artzai txakur eme bat galdu da. Txakurrak ile horixka argia du eta txiki xamarra da. Burni izena du eta irailaren 25ean galdu zen. Aurkitu duenak edo ezereen berririk duenak: 943-553364, 653-712553

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gauetz: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

## HERIOTZAK

**Norberto Aldea Morcillo**  
Ostegunean hil zen 74 urte zituela

**Guadalupe Barrado Barquilla**  
Ostiralean hil zen 71 urte zituela  
Hileta elizkizunak gaur, larunbata, arratsaldeko ZAZPIETAN  
Juan Bataiatzailea Parrokian

## IRAGARKI MERKEAK

Artzai txakurrak oparituko nituzke. ☎ 943 55 63 43

Neska bat klase partikularrak emateko eskeintzen da, arratsalde nahiz larunbatetan. ☎ 669 74 15 91

Neska gazte bat behar da 2 haur zaintzeko arratsaldetan. ☎ 943 55 10 92

Gela bat alokatzen da klase partikularrak eman, bulego lanaka egin, .... ☎ 943 55 10 92

| KIROLA       |                      |           |             | ASTEBURUKO PARTIDUAK  |                                 |            |             |
|--------------|----------------------|-----------|-------------|-----------------------|---------------------------------|------------|-------------|
| FUTBOLA      | Taldeak              | Non       | Noiz        | PELOTA                | Taldeak                         | Non        | Noiz        |
| Gorengoak    | Hernani-Tolosa       | Zubieta   | Gaur 16:30  | Gipuzkoako Txapelketa |                                 |            |             |
| Emak. Liga   | Hernani-Zumaiako     | Zubieta   | Gaur 12:00  | Afizionatu            | Alvarez-Andazpe                 | Usurbil    | Gaur 11:30  |
| 1.Errejlion  | Munibe-Hernani       | Berio     | Bihar 15:45 | Paleta                | Manzisor-Martinez/Intxaurren    | Intxaurren | Gaur 16:30  |
| Gazt. Nazi.  | Alaves-Hernani       | Glorioso  | Bihar 11:00 | Jubenilak             | Arrieta-Irazustabarrena/Bergara | Kiroldegia | Gaur 16:00  |
| Gazt. Ohor.  | Hernani-Mariño       | Zubieta   | Bihar 12:00 | Jubenilak             | Gurrutxaga-Azkoitia             | Kiroldegia | Gaur 16:00  |
| Kad. Ohore.  | Hernani-Vasconia     | Zubieta   | Gaur 10:00  | Kadeteak              | Barrantes-Fernandez/Altzatarra  | Kiroldegia | Gaur 16:00  |
| Haur. Ohor.  | R. Sociedad-Hernani  | Zubieta   | Gaur 16:00  | Kadeteak              | Ramos-Huizi/Andazpe             | Kiroldegia | Gaur 16:00  |
| ERRUGBIA     |                      |           |             | Kadeteak              | Ojuel-Arregi/Igeldo             | Igeldo     | Gaur 17:00  |
| Lagunarte.   | Hernani -Donibane L. | Landare   | Gaur 17:30  | Kadeteak              | Aizpitarte-Zazpiturri           | Amezketia  | Gaur 16:00  |
| Lagunarte.   | Hernani-Atletiko SS  | Landare   | Gaur 16:00  | WATERPOLOA            |                                 |            |             |
| Kad. Cote B. | Hendaia-Hernani      | Hendaia   | Gaur 15:00  | Euskal Liga           | Fadura-Hernani                  | Getxo      | Gaur. 19:30 |
| Kad. Cote B. | Hernani-Ziburu       | Hendaia   | Gaur 15:00  | Gipuzkoa. L           | Urbat-Hernani                   | Eibar      | Gaur. 19:30 |
| BOLEIBOLA    |                      |           |             |                       |                                 |            |             |
| 1 Maila      | Hernani-Mazcuerras   | Kantabria | Bihar 13:30 |                       |                                 |            |             |

**OIALUME BIL TOKIA.**

**Bihar hasiko dugu dantza denboraldi berria: TRAKETS taldearekin.**

**19:30etatik aurrera**

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

## Antziola-Motor

ZERBITZU OFIZIALA

**Ford Fiesta**  
berriarekin festatik festara.

**Etorri eta ikusi**

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72  
Ordutegia: Asteazkenean 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

## HAURTZAINDEGIA - LUDOTEKA

**ORDUKA**

**Latsunbe-Berri, 2 - HERNANI**

☎ 943 55 22 00

- Hezitzaile tituludunak
- 10 hilabetetatik 8 urtera bitarteko haurrak hartzen ditugu. Ordukakako egonaldiak: ordubetetik 5 ordu bitartera
- Urte osoan zehar zabalik, jai egunetan izan ezik. 8:00etatik 20:00ak arte.
- Etor zaitez bisitatzera inongo konpromezurik gabe.